

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 1098

GAIA: URTEKO DIRULAGUNTZA_SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETAKO JAIK

ESPEDIENTEA: 2025UDIR0004

INTERESDUNA: SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETAKO ELKARTEA (IFK: G44608214)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 10.000,00 € euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETAKO BIZILAGUN ELKARTEA-ren alde, 2025. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Kultura teknikaria eta Idazkaritza-kontuhartzailtzak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETAKO BIZILAGUN ELKARTEA-ren (IFK: G44608214) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETAKO BIZILAGUN ELKARTEA-ri 10.000,00 €-ko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoa(k) antolatzeko: San Pedro eta Intxaurtxuetako jaiak.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren seigarrenaren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %80. ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 10.000,00 €-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0400.481.334.53.01 partidari egozte.